

Aldez aurreko kontsulta publikoa, foru dekretu baten proiektua prestatzeko prozedura abiaraztearren, Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako Arte Plastikoetako eta Diseinuko zenbait tituluren curriculumak aldatzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten arau berriaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkariak handiena duten erakundeek honako hauei buruz:

- A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- B) Arau horren onespeneren premia eta egokitasuna.
- C) Arauaren helburuak.
- D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Dokumentu honek helburu du indarrean dagoen Administrazio Prozedura Erkidearen 133.1 artikulua aipatzen dituen gaiei konponbidea ematea, baita oinarria izatea ere aldez aurreko kontsulta publikorako, Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako Lanbide Heziketako zenbait tituluren curriculumak aldatzeko foru dekretuaren proiektua prestatu aurretik, etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Foru dekretu honen bidez aldatu egiten dira curriculumetako ordutegi-eta zenbait alderdi honako tituluak hauek lortzeko heziketa zikloetan: Produktu Grafiko Inprimatuari Laguntzeko Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikaria, 2015eko abenduaren 16ko 270/2015 FORU DEKRETUAK garatua, Nafarroako Foru Komunitatean Produktu Grafiko Inprimatuari Laguntzeko Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren tituluaren egitura eta curriculumak ezarri baitzituen; Argazkigintzako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikaria, 2013ko uztailaren 31ko 53/2013 FORU DEKRETUAK garatua, Nafarroako Foru Komunitatean Argazkigintzako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari tituluaren egitura eta curriculumak ezarri baitzituen, Arte plastikoaren eta diseinuaren arloko lanbide ikasketen antolamendu orokorra ezartzen duen maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuaren 13. artikulua aplikatuz eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan Nafarroako Foru Komunitateari arlo honetan ematen zaizkion eskumenak erabiliz.

B) Onespenaren premia eta egokitasuna.

Batetik, Curriculum diseinuak behar den prestasunaz egokitu beharko dira gure Komunitateko ekoizpen sistemaren eta zerbitzuak emateko sistemaren berezko berezitasunetara; horretarako sartu beharko dira eskariarekin bat egiten duen eta Nafarroari egokituta dagoen lanbide kualifikaziora bideratzen duten elementuak.

Bestetik, uste da komeni dela Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzetako tituluen orduen sekuentzia aldatzea, osagai amankomunak daudelako curriculumaren garapenean eta komeniko litzatekeelako osagai amankomun horiek lehen ikasturteetan egotea eta ikasleen mugigarritasuna erraztea.

C) Arauaren helburuak.

Arauaren bidez bete egin nahi dira 2010eko abuztuaren 9ko 44/2010 FORU DEKRETUAK, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan arte plastikoen eta diseinuaren lanbide ikasketen antolaketa eta garapena arautzen dituenak, 13 eta 18. artikuluetan arautzen dituen alderdiak, hots, prestakuntza modulu osagarriak eta prestakuntzaldi praktikoak enpresetan, estudioetan eta lantegietan, hurrenez hurren, eta, hortaz, orduen sekuentziak egokitu ditu bat egin dezaten ikasleek mugitzeko dituzten premiekin, bere eskumeneko lurraldeko errealitate sozioekonomikoekin eta baita garapen ekonomiko eta sozialerako aukerekin ere, irakaskuntzek uneoro ase ditzaten inguruko sektore sozioproduktiboen kualifikazio beharrak.

D) Izan litezkeen bestelako aukerak, erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Ez da balizko bestelako konponbiderik aurreikusten.

Iruñean, 2017ko apirilaren 7an.

Lanbide Heziketaren Zerbitzuko zuzendaria

Esther Monterrubio Ariznabarreta